




BIDE BERDEAREN PLAN BEREZIA

TRENBIDEAREN TRAZATU ZAHARREAN, ERMUKO HIRIGUNETIK
IGAROTZEN DEN LEKUAN

BEHIN BETIKO ONARPENERAKO

TESTUA

2025EKO EKAINA

AURKIBIDEA

A.	INFORMAZIO ETA JUSTIFIKAZIO MEMORIA	1
A.1	AURREKARIAK.....	2
A.2	LANAREN HELBURUA ETA KONTSIDERAZIO OROKORRAK	4
A.2.1	ENKARGUA: IDAZTEKO ARDURA	4
A.2.2	HIRIGINTZA AURREKARIAK: INDARREAN DAGOEN PLANGINTZA.....	4
A.2.3	LANAREN HELBURUA.....	6
A.2.4	LANEN ARLOA.....	7
A.2.5	PLAN BEREZIA EGITEKO JUSTIFIKAZIOA ETA KOMENIGARRITASUNA	7
A.3	EREMUARI BURUZKO HIRIGINTZA INFORMAZIOA.....	7
A.3.1	Lurraldearen ezaugarri naturalak.....	7
A.3.2	Eremuaren mugak	8
A.3.3	Eragina jasango duten partzelak eta jabeak.....	9
A.3.4	Erabilerak eta eraikuntzak.....	9
A.3.5	Ondare arkitektonikoa eta arkeologikoa.....	9
A.3.6	Jada badauden sareen azpiegiturak	10
A.3.7	Bide-eraginak.....	11
A.3.8	Trenbide-eraginak	11
A.3.9	Eragin akustikoak.....	13
A.3.10	Ibai-eraginak.....	13
A.4	ORDEZKO AUKEREN IKERKETA	13
A.5	PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDU XEHATUAREN IRIZPIDEAK	16
A.5.1	Neurri konpentsatzaileen proiektua.....	17
A.5.2	Azpiegitura-sareak.....	18
A.5.3	Eraikuntzaren araubidea	19
A.5.4	Landaredia eta lorategiak.....	20
A.5.5	Trenbide-eraginak	21
A.6	HIRIGINTZA DATUEN LABURPENA	21
A.7	NEURRI ZUZENTZAILEAK:	22
B.	PLAN BEREZIKO HIRIGINTZA ARAUAK.....	27
B.1	PLAN BEREZIA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA	28

B.1.1	Orokorrak	28
B.1.2	Kontzeptuen terminologia.....	29
B.1.3	Zonifikazioa eta erabilera xehatuak. Hirigintza-araubidea	30
B.1.4	Ordenantza arautzaileak	33
C.	EGIKARITZEAREN KUDEAKETAKO ETA ANTOLAMENDUKO ILDOEN AZTERKETA.....	43
C.1	JARDUKETA MOTA	44
C.2	HAPB EGIKARITZEKO EPEAK	44
C.3	URBANIZAZIO PROIEKTUA ETA OBRAK	44
D.	BIDERAGARRITASUN EKONOMIKO-FINANTZARIOAREN AZTERKETA.....	45
D.1	URBANIZAZIOAREN KOSTUAK.....	46
E.	INFORMAZIO PLANOEN ETA ANTOLAMENDU XEHATUAREN PLANOEN ZERRENDA ..	49
E.1	INFORMAZIO PLANOAK.....	50
E.2	ANTOLAMENDU PLANOAK.....	50
F.	ERANSKINAK	52

A. INFORMAZIO ETA JUSTIFIKAZIO MEMORIA

A.1 AURREKARIAK

Ermuko Udaleko Osoko Bilkurak hasiera batean onartu zuen “BIDE BERDEAREN PLAN BEREZIA (TRENBIDEAREN TRAZATU ZAHARREAN, ERMUKO HIRIGUNETIK IGAROTZEN DEN LEKUAN, BIZKAIA)” 2024ko apirilaren 30ean egindako ohiko bileran. Dokumentu horren edukia jendaurrean jartzea erabaki zuen, lurzoruari eta hirigintzari buruzko EAEko 2/2006 Legean xedatutakoarekin bat etorriz, eta ingurumen-ebaluazioaren dokumentua izapidetzearekin batera.

Hasierako onarpenaren akordioa 2024ko maiatzaren 22ko 98. BAOan argitaratu zen, eta hartan bertan adierazi zen 45 egun naturaleko epea zegoela azken argitalpenetik aurrera zenbatzen hasita, Plan Bereziari dagozkion alegazioak egin ahal izateko. Onarpena 2024ko irailaren 5ean argitaratu zen EL CORREO egunkariko iragarki batean.

Jendaurreko epean zehar, Ermuko Udalak Plan Berezia jakinarazi zien sektoreko eskumenak dituzten administrazio publikoei, eta horien kontsultaren pean jarri zuen, Planaren berri izan eta txostena emateko.

Jendaurreko epea amaitutakoan ikusi zen Plan Bereziari ez zitzaiola alegaziorik erregistratu udaletxean, eta administrazio publikoen sektoreko SEI txosten soilik jaso ziren. Txostenek sektore-izaera dute, udalez gaundiko eskumenen ikuspegitik. Halaber, INGURUMEN TXOSTENA ESTRATEGIKOA (ITE) ere jaso zen, ingurumen-kalitateko eta ekonomia zirkularreko zuzendaritza 2024ko abuztuaren 12an emandako ebazpenaren bidez adierazi zena.

Txostenak honako erakunde hauek bidali dituzte: Euskal Trenbide Sarea (ETS), BFAko Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritza, EJKo Kultura eta Hizkuntza Politika Saila (Kultura Ondarearen Zuzendaritza), BFAko Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia eta Uraren Euskal Agentzia-URA.

Dokumentua behin-behinean onartu zuten gobernu-organoaren 2025eko otsailaren 11ko saioan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari (EAELAB) bidali zioten.

Bizkaiko Hirigintza Plangintzako Atalak maiatzaren 8an egindako 3/2025 bilkuran, EAELABen akordioa hartu zuen, aho batez.

EAELABen txostena jaso ostean, dokumentuaren behin betiko onarpenari ekin zitzaion gobernu-organoak 2025eko ekainaren 24an egindako saioan.

Dokumentu honetan, EAELABen txostenaren ondoriozko aldaketak jaso dira, eta honako hau berariaz adierazi da:

- Lehenetsi da azpiegiturak nekazaritza-lurzoruan izan dezakeen eragina ahalik eta txikiena izatea, nekazaritza eta basogintza antolatzeko LPSra egokitze aldera.
- Bete behar dira 41/2001 Dekretuaren bidez onartutako EAEko Trenbide Sarearen Lurraldearen Plan Sektorialeko zehaztapenak, bai eta Trenbideen Sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legea, aurrekoa aldatzen duen 26/2002 Legea eta Erregelamendua ere, abenduaren 30eko 2387/2004 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa.
- Jarduketak 44+800 KPen inguruan eta 43+600 KPtik 43+700 KPra artean egingo direnez, ETSk ematen duen administrazio-baimena beharko da lanak egiteko, azpiegituraren administraria delako EAEn. Horrek ez ditu beste administrazio publiko batzuen eskumenak baztertzen eta, beraz, ezein eskaera egin aurretik, eraikuntza-proiektua aurkeztu beharko da, ETSk aztertu eta baimena emateko, bidea trenbidetik gertu baitago kilometro-puntu horietan. Hartara, segurtasuna bermatu ahalko da.
- Bide berdean sukaldaritza-instalazioak eta/edo komunak ezartzen badira, baldintza loteslea izango da sortzen diren hondakin-urak saneamendu-sistema orokorrera konektatzea (Plan Hidrologikoko 52.1 art.).
- Jarduketa batek jabari publiko hidraulikoari eragiten badio edo jabari horri lotutako babes-eremuetan badago (zortasuna eta zaintza), Uraren Euskal Agentziaren administrazio-baimena beharko da nahitaez.
- ITEn adierazitako babes-neurriak eta neurri zuzentzaileak Plan Bereziaren dokumentuan txertatu dira. Halaber, ezpondako aurkako eraikuntza-baldintzak kontuan hartuko dira bidearen diseinu-proiektuan jasotzeko, mendiko eremu horretan lur-jausiak daude eta. Gangaren tratamendua ere egingo da, aske dagoen materialak lur-jausi txikiak ez eragiteko.
- Duela gutxi onartu den Bizkaiko bizikleta bideen LPSa eta hartan aipatzen den bigarren mailako L1.10 linea ere jaso dira memorian.

A.2 LANAREN HELBURUA ETA KONTSIDERAZIO OROKORRAK

A.2.1 ENKARGUA: IDAZTEKO ARDURA


Plan berezi hau beharrezkoa da Ermuko udalerrian indarrean dagoen plangintzan definiturik dagoen *Bide Berdearen Plan Bereziaren* eremua zehaztasunez antolatzeko. Plana idatzi da Ermuko Udalak TRION Planes y Servicios SLP enpresari eskatu diolako.

A.2.2 HIRIGINTZA AURREKARIAK: INDARREAN DAGOEN PLANGINTZA

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (aurrerantzean HAPO) da Ermuan indarrean dagoen plangintza. Udaleko Osoko Bilkurak behin betiko onartu zuen 2015eko otsailaren 25ean, "Betiondo" eremuari buruzko zehaztapenak izan ezik.

Ebazpena eta araudia geroago argitaratu ziren, urte bereko martxoaren 24an, 56. BAOn.

Indarrean dagoen HAPOko zehaztapenetako bat *Bide Berdearen Plan Bereziaren* eremua da, eta fitxa hau dagokio:



BIDE BERDEAREN PLAN BEREZIAREN FITXA.

1. DESKRIBAPENA:

Hizpide dugun eremua bat dator Euskotrenen sareko Bilbo-Donostia linearen egungo trazadurekin, eta San Antonio auzoa geltokitik San Lorenzo auzoarekin konektatzen du. Trazadurak Gipuzkoa hiribideko eraikuntzen atzealdeak ditu mugakide.

2. ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK:

Bide berde bat egin nahi da Euskotrenen egungo linearen trazaduran, aurreikusitako tren-ingurabidea egin ostean. Ondorioz, San Antoniotik San Lorenzo auzoraino doan egungo trazadura erabiltzeari utziko zaio. Trazadura berreskuratu eta bide berde bihurtzen denean, Ermuko hirigunea eta hainbat auzo (San Lorenzo kasurako) lotuta geratuko dira Zaldibarrera doan bideraino. Era horretan, herritarrentzako aisia- eta paseo-gune bat lortuko da, nahiko laua.

Eremua lurzoru urbanizaezinean dago batik bat, baina hiri-lurzoruko bi eremurekin gainjartzen da bi muturretan. Mutur batean, AEDP 010 San Antonio eremuarekin gainjartzen da; zehazki, zuzkidura publikoak egikaritzeko jarduketa bat da, eta han aparkaleku bat egitea aurreikusten da. Beste muturrean, AEDP 010 San Antonio bizitegi-eremuarekin gainjartzen da. Bi eremu horietan lurzoru-zatiak lagatzea aurreikusten da, bide berderako.

Bidea AEDP 010 San Antonio eremuan zehar hasiko da, aurreikusitako aparkalekuaren gainean planteatzen den igoera aprobetxatuz. Hortik aurrera, Gipuzkoa hiribideko 10 bis eta 12 bis zenbakietako etxebizitza-blokeen parean dagoen zelaiguneraino iritsiko da bidea, jakinik bai oinezkoak, bai ibilgailuak leku horretatik heltzen direla inguru horretara.

Leku horri Joxio-Aldia esaten zaio, eta, hortik aurrera, trazadura mendi-magaletik doa harik eta San Lorenzo auzora iristen den arte. Han, bidea Espilla baserrira igotzeko bidearekin lotzea aurreikusten da, AOD-02 San Lorenzo eremuaren barruan. Hartara, oinezko konexioa egongo da Olaetxe eta Eitzaga auzoekin. Orobat, egungo N-634ra iristeko oinezko sarbidea aurreikusten da, San Lorenzo ikastetxearen ondoan. Ondorioz, San Lorenzo auzora sartzea errazagoa izango da, bidea eskolara joateko ere erabiltzeko aukera egon dadin.

Bide Berdearen Plan Berezia garatzen denerako AEDP 010 San Antonio eta/edo AOD-02 San Lorenzo eremuak egikarituta ez badaude, behin-behineko sarbideak aurreikusi eta egin beharko dira Plan Bereziaren barruan, kasu batean zein bestean.

Hainbat erabilera planteatu daitezke bidean: haurrentzako jolas-guneak, adinekoentzako kirol-guneak, etab. Bidegorria ere egon daiteke, aisia-erabilera eta eguneroko garraio-erabilera sustatze aldera. Ez da mugarik finkatu oinplanoko okupazioan, eraikinen altueran edota izan daitezkeen erabilera zehatzetan. Garapenaren plangintzan zehaztuko dira, espazio askeen sistema orokorrari lotutako arau orokorretan zer jaso den kontuan hartuz.

3. EGITURAZKO HIRIGINTZA ARAUBIDEA:

Hirigintza sailkapena: eremuari atxikitako lursail guztiak lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta daude, AEDP 010 San Antonio eta /edo AOD-02 San Lorenzo eremuetan daudenak izan ezik, eremuko sailkapena baitagozkie horiei. 18.436 m²-ko azalera dauka.

Kalifikazio orokorra: eremuko erabilera bereizgarria espazio libreen sistema orokorrena da.

Programatzeko eta egikaritzeko epeak: eremu hau plan berezi baten bitartez garatu beharko da Plan Orokorreko zehaztapenak garatzeko tresna gisa, eta bi (2) urteko epea dago gehienez ere, tren-ingurabidea egikaritzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

4. HIRIGINTZA ARAUBIDE XEHATUA:

Plan Orokorrak ez du eremuaren antolamendu xehatua definitzen. Aldiz, plan berezi batek garatu behar du, fitxa honetako 2. atalean adierazi diren irizpideei jarraikiz. Plan Bereziaren adierazpena eta izapidetzea lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 97. artikuluan xedatutakoa beteko du.

Flora exotiko inbaditzailearen harira, ugaritzea saihesteko neurriak hartzea gomendatzen da, eta, adibidez, "EAEko flora aloktono inbaditzailearen diagnostika" dokumentua begiratzea aholkatzen.

A.2.3 LANAREN HELBURUA

Bide Berdearen Plan Bereziaren eremuari buruzko fitxan agertzen diren zehaztapenen artean, plan berezi baten bidez garatzeko betebeharra xedatzen da 3. atalean: egiturazko hirigintza araubidea.

Horrenbestez, HAPOn finkatutako xedapenak betetze aldera, Bide Berdearen Plan Berezia (BBPB) idaztea planteatzen da, eremuan aurreikusten diren jarduketak sustatu eta garatu ahal izateko.

Lan-kontratua gidatzen duten plegu teknikoekin bat, helburua da BBPBren eremua garatuko duen HAPB idaztea, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 69. eta 70. artikuluetan aipatzen den edukiarekin. Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren dokumentua ere egin behar da izapidetze sinplifikatua egiteko, indarreko ingurumen-legeriari jarraituz.

A.2.4 LANEN ARLOA

HAPOrekin bat etorriz, BBPBren eremuak 18.436 m² inguruko azalera du eta HAPOk zedarritzen duen gunea hartzen du bere baitan. Zehazki, Euskotren sarearen Bilbo-Donostia trenbidearen trazatu zaharrari dagokio. Bestalde, eremua bi gunetan gainjartzen da: iparraldean, AEDP-10 San Lorenzorekin, hiri-lurzoruan; eta AOD-02 San Lorenzorekin, hiri-lurzoru finkatu gabea.

A.2.5 PLAN BEREZIA EGITEKO JUSTIFIKAZIOA ETA KOMENIGARRITASUNA

Plan berezi hau BBPBren eremuaren antolamendua zehazteko plangintza-tresna da, eta HAPOren egiturazko antolamendua garatzen du lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 69. eta 70. artikuluetan finkatutakoaren arabera.

Gaur egun indarrean dagoen hirigintza-antolamenduari jarraikiz, aipatzekoa da dokumentu honetan finkatzen diren antolamenduaren alderdiak zehaztapenak direla eta *hirigintzako antolamendu xehatu* deritzonari dagozkiola, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 56. artikuluan xedatutakoa ikusita.

A.3 EREMUARI BURUZKO HIRIGINTZA INFORMAZIOA

A.3.1 Lurraldearen ezaugarri naturalak

BBPBren antolamenduak xede duen eremua bat dator trenbidearen trazadura zaharrarekin. Lurzoru urbanizaezinetik doa ia azalera osoan, AEDP-10 San Antonio (hiri-lurzorua) eta AOD-02 San Lorenzo (hiri-lurzoru finkatugabea) eremuekin gainjartzen den gunetan izan ezik. Oro har, sekzioa zertxobait aldatzen da egungo trazadurako gune batzuetan, baina landaredia eta zuhaitzak daude horietan. Trazadurako sestrak gora doaz iparretik hegora, nahiz eta ez den asko hautematen malda handirik ez dagoelako. Bestalde, Gipuzkoa hiribidearen aldean, gorago dagoen kota batean egiten du bidea. Eremuaren iparraldean, horixe izango da biderako sarrera, Plan Berezia proposatzen diren sarbideen artean. Trazaduraren zati bat gutxi gorabehera 35 metro luze den tunel batetik doa. Eremuaren inguruan, lurzoru

urbanizaezinaren kategoria nagusia basokoa da, eta babes berezikoa ere bai, neurri txikiagoan, mendebaldeko mugan.

Gaur-gaurkoz, bidera sartzeko bi puntu daude eremuaren iparraldean: AEDP-10 San Antonio eremuarekin gainjartzen den lekuan, eta tunelaren muturretako batean, Eitzagako errepidera jaisten den bide batekin bat egiten duen lekuan.

A.3.2 Eremuaren mugak

Bidearen eremuaren mugak BBPBn zehaztu dira, eta plangintza orokorrean aurreikusitako azalerak antolamendu xehatuaren arabera doitu dira. Tren- eta bide-trazadurak egungo egoeraren arabera moldatu dira, takimetrikoa eta Bizkaiko Foru Aldundiaren kartografia erabilia. Alde horretarik, tren-ingurabidea trazadura zaharrari lotzen zaio eremuaren hegoaldeko puntu jakin batean eta, beraz, eremuaren mugak aldatu egin dira bertan eta orain tren-trazadurari dagokion azalera baztertu da. Horrez gain, mugak pixka bat aldatu dira bidearen zenbait puntutan, aurreikusten diren erabilerak modu koherentean bideratzeko. Horren ondorioz, zenbait partzelari eragin zaie.

Doikuntza horrek Ermuko HAPOk 15. artikuluari jarraitzen dio. Hona hemen zer dioen:

“15. art. Muga-zehaztapena

1. Eremuen mugetan egokitzen batzuk egin ahal izango dira garapenerako tresnetan, ondoko alderdiei dagokienez gertatzen direnean:

- Indarreko lerrokadurak edo eraikuntza lerroak.*
- Lurraldearen ezaugarri topografikoak.*
- Landa- edo hiri-jabetzaren lurretako mugak.*
- Zuhaitzak edo udaleko zerbitzu teknikoaren iritziz interesgarriak diren beste elementu batzuk egotea.*

2. Berregokitzapenak ez ditu bere forman distortsioak ezarriko, ez eta Plan Orokor honen planoetan mugatuta dauden azalaren ehuneko bostetik (%5) gorako handitze edo txikitzeak ere.

BBPBren ermuko azalera osoa Ermuko HAPOn zehaztu da: 18.436 m². Zedarritzeko lanean doikuntza egin da, ordea, eta azalera zertxobait jaitsi da, 18.386 m²-ra arte (18.485,78 m²), hots, finkatu zena baino % 5 txikiagoa da.

A.3.3 Eragina jasango duten partzelak eta jabeak

Beheko taulan, BBPBren eremuan dauden partzelak eta horien jabeak agertzen dira.

JABEAK ETA ESKUBIDEAK					
Partzela- zk.	Zk. finkoa:	Partzelaren azalera m ²	BBPB m ² %		Jabea
1	-	-	127,87	% 0,7	Ermuko Udala
2	-	10.679	10.255,64	% 55,7	ETS
3	-	7.537,36	6.047,59	% 32,8	ETS
4	034003169	1.422,37	217,28	% 1,2	Aguirre Unceta Erauzquin Palacín Barinaga-Rementería * ¹
5	034003229	883,65	277,-42	% 1,5	Erauzquin Palacín Barinaga- Rementería * ¹
6	-	-	1.239,42	% 6,7	BFA * ²
7	-	-	220,81	% 1,2	Sestra azpiko tunela
GUZTIRA, BBPB			18.385,78	% 100,00	

*¹ 4. eta 5. partzelak bide berdearen eremuaren barruan sartu dira, eta lurrak jabetza kenduz lortuko dira.

*² 6. partzela bide berdearen eremuan sartu da, bide berdera sartzeko proposamen gisa. Horretarako, Udalak eta BFAk hitzarmenak sinatuko dituzte etorkizunean, lur horien jabeak direlako.

A.3.4 Erabilerak eta eraikuntzak

Ermuko HAPOn esleitzen zaion erabilera espazio askeen sistema orokorrarena da, eta, HAPOk V. tituluko 3. saileko 7. atalean datorren 81. artikuluari jarraituz, Bide Berdearen erabilera xehatua berdegune publikoaren definizioaren bat dator eremu osoan.

Plan Bereziko B atalean (hirigintza-arauak) erabilera xehatua jorratu da.

Eraikuntzei dagokienez, orain ez dago horrelakorik bide berdearen eremuan.

A.3.5 Ondare arkitektonikoa eta arkeologikoa

Ez dago ondare arkitektonikoko elementurik BBPBren mugetan. Halarik ere, aipatzekoa da Espilla baserria ondarearen katalogoaren barruan kokatu dela HAPOn esparruan, balizko arkeologia-gune gisa. Bidea doan tuneletik gertu dago baserri hori, baina Plan Bereziaren eremuaren mugetatik kanpo.

A.3.6 Jada badauden sareen azpiegiturak

Ermuko Udalak emandako informazioaren arabera, bidean ez dago zerbitzua ematen duen sarerik, baina puntu batzuetatik igarotzen dira.

Hornidura-sareari dagokionez, Errotabarriko andela bidetik dago, altuago, eta Ermuko hiri-eremua hornitzen du. Bidearen azpian, trazaduraren adar batek norabide perpendikularra hartzen du, iparraldean eta Gipuzkoa hiribideraino. Bestalde, Espilla baserria hornitzen duen adar bat dabil bideko tuneletik gertu.

Hornidura-sareari begira, ur zikinen eta euri-uren sarearen adarrak daude San Antonio eremuan. Ustez, Debabarreneko kolektorea doa euri-urak. Plan Bereziko ordenantzetan "Ze1" gisa zedarritu den gunean, etxebizitza-eraikinaren pareko hustubideetako ura biltzen duen euri-uren adar bat dago, zati batean. Etxebizitza horiek bidearen ia maila berean daude. Oro har, sarea bidearena baino kota baxuagoetan dabil, eta horrek erraztu egingo du bidean proposatzen diren sareen maldak egitea. San Lorenzo eremuan ere bidetik gertu dauden trazadurak daude. Dena den, ez dago informaziorik hortik aurrera. Trazaduraren zati batean, urak biltzen dira bideekiko paralelo dabilen hormigoizko areka batean.

Argiztapen-sareari buruz, oraingoan ere trazaduraren zati bat San Antonio eremua baino kota altuago batetik doa, bide berdearen iparraldetik hurbil. Orain dagoen aparkalekuaren inguruko farolei ematen die zerbitzua. San Lorenzo eremuan, adar bat bidetik gertu doan, Eitzagara doan errepidetik. Oro har, argiztapen-sarearen gainerakoa bidearekiko paralelo doa Gipuzkoa hiribidetik.

Gas-sareari erreparatuz, trazaduraren zati bat San Antonio eremutik doa ingururik garaieneko etxebizitzetara iristeko, eta horiek bidetik hurbil daude.

Energia elektrikoaren hornidura-sarearen trazadura lurpetik doa eta bidearen eremuko hainbat puntu zeharkatzen ditu iparraldean. Hain zuzen ere, transformazio-gune bat dago ordenantzetan Ze1 gisa zedarritu den eremuan. Trazaduraren zati bat bidearekiko paralelo doa, eta, ondoren, azpitik, San Lorenzo eremuko tarte batean. Azkenean, bidearen mugetatik irteten da tunelaren ingurura heldu aurretik Aipatzekoa da ordenantzetan 2. GB gisa zedarritu den gunea ere zeharkatzen duela sareak. Bidearen hegoaldean, trazaduraren zati bat bidearekiko paralelo eta hurbil pasatzen da.

Amaitzeko, telekomunikazio-sarearen zati bat bide berdearen trazaduratik dabil, San Antonio eremutik San Lorenzo eremuraino bederen.

A.3.7 Bide-eraginak

Gaur egun, N-634 (Ermuko ingurabidea) eta AP-8 errepideek dute eragina eremuan, eta biak daude Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Errepideen Sarearen barruan. BBPBren eremuaren hegoaldeko zati bat aipatu bi bideek eragina duten inguruan dago. Horrez gain, eremuaren hegoaldeko muturraren zati bat Ermuko ingurabidearen azpitik pasatzen da, eta, hortaz, bide horren jabari publikoko gunetik.

HAPOn finkatu den moduan, foru-errepideak direnean, Bizkaiko errepideei buruzko martxoaren 24ko 2/2011 Foru Arauan datozen xedapenak aplikatuko dira. Halaber, hirigintza-garapenei dagozkien hainbat eragin sektorial planteatzen dira modu loteslean.

Ildo horretan, eraginpeko eremu horren harira, arau horren 32. artikulua hau finkatzen du:

“Eraginpeko eremuan edozein lan mota eta instalazio finkoak zein behin-behinekoak egiteko, erabilera aldatzeko eta zuhaitzak landatu edo mozteko, Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunaren baimena behar da, beste edozein erakundek gaian eduki ditzakeen eskumenak gorabehera”.

Bestalde, jabari publikoa dela eta, hau adierazten da 30. artikuluen 3. puntuan:

“Salbuespen gisa, errepidearen jabari publikoko eremuan honako lan hauek egiteko baimena eman daiteke: ur-hodien, saneamenduaren, gasaren, telefoniaren, eta elektrizitatearen sareen azpiegiturak ezarri edo ordeztzeko lanak eta antzeko lanak. Horretarako, baldintza hauek bete behar dira: lanok interes orokorreko zerbitzu publiko bat emateko izan behar dira, eta behar bezala justifikatu behar da beti arazo fisikoak edo teknikoak direla medio zerbitzu horiek ezinbestez zeharkatu behar dutela jabari publikoko eremua, eta, betiere, berrabiarazteko geratu behar dira errepidearen bide-segurtasuna eta mantentzea.

[...] Nolanahi ere, Herri Lan Saileko foru diputatuari dagokio interes publikokotzat jota dauden eta lurralde izaera nabarmena duten lanak baimentzea. Betiere, arlo horretan beste erakunde batzuek izan ditzaketen eskumenak gorabehera”.

A.3.8 Trenbide-eraginak

Eremuaren hegoaldea Bilbo-Donostia trenbide-sareko trazaduraren jabari publikoko eta zortasuneko guneetan dago. Era berean, eragina izango du bideko iparraldeko sarbidean ere — trenbidearen trazaduraren azpian dagoena—.

Alde horretatik, eta jabari publikoko guneari begira, hona hemen zer finkatzen den EAEko Trenbide Sarearen LPSko (otsailaren 27ko 41/2001 Dekretua) 25. artikuluan:

“Jabari publikoko trenbide gunean trenbide zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak diren obra edo instalazioak baino ezin izango dira egin edo interes orokorreko zerbitzu publikoaren prestazioak hala eskatzen duenean; horretarako, eskumena duen administrazio organoaren aurretiazko baimenarekin eta linearen ustiaketaren titularrak esateko duena entzun ondoren”.

Bestalde, zortasun-guneari dagokionez, dekretu horrek hau xedatzen du bere 26. artikuluan:

“(...) Aurreko atalean aurreikusi ez diren obrak edo trenbidea zeharkatu behar duen edo trenbidean, haren lurren, instalazio edo eraikinen zortasun edo mugapenen bat dakarren beste edozein jarduketa egiteko, linearen titularraren baimena behar da eta hark jarduera zer-nolako baldintzetan egin behar den zehaztuko du eta obra edo jarduera horiek trenbidea kaltetzen ez dutela bidezkotu beharko da”.

Gainera, aintzat hartu beharreko mugak daude gunek eragina duen lurzoruetan; besteak beste:

“Zortasun gunearen lurzoru erabilera eta eraiketa honako mugapenei atxikiz egingo da:

a) Zuhaitzak landa daitezke, trenbidearen eta haren elementuen ikuspena kaltetzen ez bada eta ibilbidean zehar bide-segurtasunik eza eragiten ez badu.

b) Zuhaitz mozketak baimendu egin behar da eta hura ukatzeko arrazoiak hauek dira: uraren etorria aldarazten duelako, trenbidea kaltetzen duelako edo ezponden ezegonkortasuna eragiten duelako edo hala bidezkotzen duten bestelako arrazoi batzuegatik.

c) Ezin izango da goi-tentsioko linea elektrikorik ipini.

d) Behe-tentsioko linea elektrikoak, telefono eta telegrafo lineak ipini ahal izango dira zutoinaren eta lubeta edo ebaketa oinaren arteko distantzia haren altueraren halako bat eta erdi baino txikiagoa ez bada. Gutxienezko distantzia hori airetiko gurutzaketa-zutoinei ere aplikatuko zaie.

e) Ezin izango da lurrazpiko hoditeria sartu herri zeharbidea delako edo ingurumaria konketuengatik bestelako konponbide teknikorik ez dagoenean izan ezik.

f) Ebaketen eta lubeten euste-hormak eraikitzeko baimena kasu berezietan eman dezake linearen titularra den enpresak, betiere, bermaturik badago horrek ez diola trenbideari kalterik ekarriko. Kasu horretan, linearen titularrari eskaerarekin batera proiektu bat aurkeztu behar zaio eta bertan, eraikuntzak lur berdinketaren gainean izango lukeen ondorioa, euri uren kanporaketan eta zirkulazioaren segurtasunean leukakeen eragina aztertu behar da.

Bidearen iparraldeko sarbidea tren-trazaduraren azpitik doa, eta EAEko Trenbide Sarearen LPSko (otsailaren 27ko 41/2001 Dekretua) 33. artikuluan hainbat zehaztapen datoz. Edonola ere, eragina jasango duten guneen gaineko baimena beharko da, organo eskudunak emanda.

A.3.9 Eragin akustikoak

Urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren arabera, ez da beharrezkoa kalitate akustikoaren helburua bermatzea BBPBren eremuan, eraikuntza eta hirigintza-garapen berriei aplikatzen zaielako eta BBPBn horrelakorik ez dagoelako.

A.3.10 Ibai-eraginak

Urari buruzko legearekin bat, 5 metroko zortasun-gunea ibaiaren ibilguaren bi aldeetan finkatu da, baita ibilguen zaintza-gunea ere, Ego eta Ariola ibaien ibilguaren bi aldeetako 100 metrotan.

Eremuaren mugen iparraldea Gipuzkoa hiribidearen gainetik pasatzen da, eta handik doa Ego ibaiaren bidea, sestra azpian. Oinezkoentzako arrapala bat aurreikusten da sestra gainean, Ego ibaiaren zortasun-gunearen barruan. Horrenbestez, Uraren Euskal Agentzia-URAK txostena egitea behar da Plan Berezia izapidetu ahal izateko.

A.4 ORDEZKO AUKEREN IKERKETA

Orain azalduko da zer beste aukera aztertu diren Plan Berezia gauzatzeko:

IRIZPIDE OROKORRAK:

Aukera guztiak Ermuko HAPOko BBPBren fitxan finkatuta dauden irizpideetan oinarritzen dira. Irizpide orokor horiek funtsezkoak dira bidean esku hartzen den bezain laster. Honela laburbiltzen dira Plan Berezian:

- Trenbidearen trazadura zaharra oinezkoentzako Bide Berde gisa behar bezala egokitzeko erabilera eta arau aproposak finkatzea.
- Oinezkoentzako ibilbidearen jarraitutasuna bermatzea bide osoan. Bizikleta-erabilera eta oinezkoena bateragarriak dira. Hartara, oinezkoen eta bizikleten bizikidetzarako espazio bat izango da, kontuan hartuta duela gutxi onartu den Bizkaiko bizikleta bideen LPSa eta hartan aipatzen den bigarren mailako L1.10 linea.
- Bidearen izaera naturala indartzea erakarpén-puntu gisa, baita hiriaren eta naturaren arteko harremana ere.
- Bidearen balio naturala zaintzea eta esku-hartzea ahalik eta txikiena izan dadin sustatzea, baita ingurunearekin koherentea izan dadin ere, ahal den neurrian.

0. AUKERA:

Eremua egungo egoeran kontserbatzea. 0. aukeran proposatzen da esku-hartzerik ez egitea eremuaren azaleran. Hortaz, ezin da egokitzapenik edo hobekuntzarik egin eta, hala, ezin da bide berde gisa erabili.

1. AUKERA:

Aukera honetan, bide berdearen iparraldean bi sarbide egitea proposatzen da: arrapala bat Gipuzkoa hiribidetik eta Gipuzkoa hiribidea zeharkatzeko pasabide bat. Era horretan, geltokiaren plazatik iritsi ahalko da bidera. Gainera, titulartasun publikoko zenbait lur daude eremuaren mugen barruan, bide berdearen zati gisa baliatzeko. Halaber, beste sarbide bat planteatzen da Errotabarri plazatik, loteslea ez dena. Bidearekin komunikazio bertikala izateko aukera bat da. San Lorenzo eremuan, Eitzaga errepidera doan bidetik sartzeko gunek bat prestatuko litzateke, eta beste sarbide bat bidearen amaieran, Eitzagatik. Askotariko erabilera osagarriak proposatzen dira bidean zehar, gunek bakoitzaren ezaugarrien arabera (azalera

eta sekzio handiagoak, sarbideak...). Era berean, beste erabilera espezifiko batzuk eman nahi izan zaizkio bidetik doan tunelaren inguruari, espazioa berezia izateko eta ibilbideko puntu beltza izateari uzteko.

2. AUKERA:

Aukera honetan, bidearen sarbidean sinplifikatu dira. Bide berdearen iparraldean irisgarritasunari buruzko araudia betetzen duen arrapala baten bidez sartzea proposatzen da. Hala, Gipuzkoa hiribidea zeharkatzen duen pasabidearen aukera baztertuko litzateke. Era horretan jokatzuz gero, begizko inpaktua txikiagotuko litzateke. Bestalde, sarbideei erreparatuz, San Antonio eremuko sarbidea nahikoa izango litzateke, horrek ere lotuko bailituzke Gipuzkoa hiribidea eta bide berdea. Aukera honetan, eremuaren mugak sinplifikatu egiten dira.

San Antonio eremuan komunikazio bertikalerako nukleo bat egon liteke, eskailera eta igogailuarekin, eta Errotabarri plazatik hurbil samar. Gainera, eskailera bat dago gaur egun, eta ibilgailuak bide berdearen kotaraino irits daitezke. Horren eraginez, 1. aukeran planteatu den sarbidea baztertuko litzateke, Errotabarri plazan legokeena.

Aukera honetan, 1. aukerako gainerako proposamenak gordeko lirateke, hots, San Lorenzoko sarbidea, hegoaldeko sarbidea Eitzagatik eta, orobat, bideko gunez gunea eta tunelean planteatzen diren erabilerak eta ordenantzak.

Proposamen hau eta 1. aukera antzekoak dira. Hala eta guztiz ere, orain hizpide dugun aukerak soiltasunaren eta malgutasunaren arteko oreka bilatzen du, bidean esku hartzea errazteko bideragarritasun ekonomikoaren eta malgutasunaren ikuspegitik. Bestalde, begizko inpaktu handia eta ingurumen-inpaktua izan dezaketen jarduketak baztertu dira; adibidez, iparraldeko pasabidea eta komunikazio bertikalak Errotabarri plazatik. Zeregin horietan guztietan, funtsezkotzat ditugun eta atal honen hasieran aipatu ditugun irizpide orokorretan oinarritu gara.

Jarraian, aukera honen irizpideetan sakonduko da, aukera hori baita Plan Berezian garatuko dena.

A.5 PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDU XEHATUAREN IRIZPIDEAK

Atal honetan, arestian jorratu den 2. aukerari lotutako irizpideak garatuko dira. Abiapuntua antolamendu-irizpideak izango dira, Ermuko HAPOko BBPBren eremuari buruzko fitxan finkatu direnak. Laburrean, antolamenduan ezarri diren irizpideak hauek dira:

Irizpide orokorrak:

- Trenbidearen trazadura zaharra oinezkoentzako bide berde gisa behar bezala egokitzeko erabilera eta arau aproposak finkatzea.
- Oinezkoentzako ibilbidearen jarraitutasuna bermatzea bide osoan. Bizikleta-erabilera eta oinezkoena bateragarriak dira. Hartara, oinezkoen eta bizikleten bizikidetzarako espazio bat izango da.
- Bidearen izaera naturala indartzea erakarpen-puntu gisa, baita hiriaren eta naturaren arteko harremana ere.
- Bidearen balio naturala zaintzea eta esku-hartzea ahalik eta txikiena izan dadin sustatzea, baita ingurunearekin koherentea izan dadin ere, ahal den neurrian. ITen adierazten den bezala, ezpondako aurkako eraikuntza-baldintzak kontuan hartuko dira bidearen diseinu-proiektuan jasotzeko, mendiko eremu horretan lur-jausiak daude eta. Gangaren tratamendua ere egingo da, aske dagoen materialak lur-jausi txikiak ez eragiteko.

Sarbideak:

- Hirigunetik bidera iristeko sarbideak prestatuko dira. Ibilbide eta sarbide jakin batzuk bermatu nahi dira; esate baterako, bidearen iparraldekoak (A1 gunea) eta AEDP-10 San Antonio eremuari lotuta daudenak.
- Beste sarbide batzuk proposatzen dira, A2 kasurako. Zehazki, Eitzaga auzoarekin lotzeko puntu bat proposatzen da, bidearen hasiera eta bukaera izan daitekeena.
- San Lorenzo eremuan sarbide bat egongo da (2. GB), Eitzaga errepidetik trazadurako tunelaren ondoko zelaigunerako doan bide bat dagoen lekuan.

Erabilerak:

- Izaera handiagoa eman nahi zaie bide berdearen gune jakin batzuei. Horretarako, baldintza berezi jakin batzuk finkatu dira erabilera xehatueta, oinezkoentzako

ibilbidea eroso eta segurua dela ziurtatzeko. Era berean, erabilera osagarriak proposatzen dira, askatasuna eta askotariko jarduerak lortzeko eta, halaber, esku hartzen den ingurunearekin koherentea izateko.

Tunela:

- Bidea pasatzen den tunelari arreta berezia eman behar zaio. Horregatik, erabilera jakin batzuk arautuko dira espezifikoki, espazio berezia izateko eta ibilbideko puntu beltza izateari uzteko.
- Tunelaren ingurua berregituratzea da asmoa, genero-ikuspegitik arriskutsua ez izateko eta, horren ordez, puntu interesgarri bat izateko. Horren ondorioz, erabilera osagarri gisa sukaldaritza-instalazioak egoteko aukera dagoen gune bakarra da. Hartara, esate baterako, kafetegi bat egon daiteke tunelaren inguruan, edo instalazio artistiko interesgarriak edo bestelako esku-hartzeak.

Bestalde, Plan Berezia eta San Antonio eremuaren Plan Berezia koordinatuta daude, eta, San Lorenzo eremuarekin gainjartzen den guneetan, sortu daitezkeen aukerak kontuan hartuko dira.

A.5.1 Neurri konpentsatzaileen proiektua

Aipatu behar da neurri konpentsatzaileen proiektua dagoela. ORBELA Investigación y Educación Ambiental SLk idatzi zuen 2014ko ekainean eta, hartan, Ermuko Udalak gauzatu beharreko jarduketak jasotzen dira, Ermuko hegoaldeko ingurabidearen neurri konpentsatzaile gisa, INTERBIAKek eta Udalak sinatutako hitzarmen bat dela eta, ETSk tren-trazadura aldatu ostean. Proiektuaren helburua da Ermuko bide berdea hornitzeko eta ingurumen- zein paisaia-hobekuntzak egiteko lanak definitzea. Besteak beste, ingurumen-hobekuntzak egiteko eta paisaia-integratziorako jarduketak jaso dira proiektuan, BBPBren eremuaren barruan eta kanpoan egingo direnak. Plan Bereziko partzeletan planteatu direnak ez dira bateraezinak planeko antolamendu xehatuarekin eta jarduketekin.

Bide berdearen eremutik at dauden partzelei dagokienez, neurri konpentsatzaileen proiektuan hobekuntza-jarduketak planteatzen dira narriatuta dauden eta, Ermuko HAPOk lurzoru urbanizaezinaren kategoriei jarraikiz, ingurumen-hobekuntza behar duten partzeletan. Alde horretatik, jarduketak egokiak direla uste da, eta, hortaz, gune horietan jardutea gomendatzen da. PI-09-IP PLANOAN (eragina jasango duten partzelak), neurri

konpentsatzaileen proiektuan sartu diren partzelak irudikatu dira. Izen honekin ageri dira: “Ingurumen-hobekuntza gisa esku hartzea gomendatzen den partzelak”.

A.5.2 Azpiegitura-sareak

Udalak emandako dokumentuak aintzakotzat hartuta, sare bakoitza kontuan izanda, trazadura bidearen ibilbidetik garatu beharko da, erabilerari zerbitzua emateko. Ildo horretan uste da ez dela sareen gaitasuna jokoan jarriko, eremuan ez baitago bizitoki gehiago. Halaber, inpaktu txikiko zerbitzuak emateko gaitasuna soilik izan beharko luke: argiteria, ureztapena, urak biltzea, komunak...

Hornidura-sarea bidetik pasatzen da bi puntutan, BBPBko 2.6 atalean zehaztu den moduan. Hori dela eta, ez da arazorik aurreikusten adar berri bat bidean zehar eramateko puntu horietako batetik abiatuta. Haatik, diametroei eta presioei buruzko informazioa beharko da sarearen konexio-puntuak aztertzeko. Bidearen iparraldea zeharkatzen duen adarra Errotabarriko andeletik dator eta udalerraren zati handi bat hornitzen du. Beraz, diametro handi samarra izango du, ziur asko. Aurrerantzean prestatuko diren dokumentuetan, trazadurei buruzko informazioa zehaztu eta doitasunez definitu beharko dira, eta berdin sarearekin dituen konexio-puntuekin.

Printzipioz, ur zikinen eta euri-uren sareak ez du bidea inon zeharkatzen. Dena den, adarrak daude San Antonio eta San Lorenzo eremuetan, eta bidetik joango diren adar berriak han konekta daitezke. Eremuaren morfologia ikusirik, sare berriak garatzea ekar dezakeen arazorik handiena trazaduraren luzera da, bidea sarearen gainerakoa baino kota altuagoan baitago, eta hori mesedegarria da saneamendu-sareari begira. Lurren baldintzak kontuan izanda, isurketa-uren bilketa zehaztu beharko da. Gaur egun, bidearen tarte batean biltzen dira, bidearekin paraleloa den hormigoizko areka baten bitartez. Urak biltzeko proposatzen den eskeman, bidearekin paralelo doan elementu bat dago, ura zenbait puntutan jaso eta sarean isuriko duena.

Bide berdean zaharberritze-instalazioak eta/edo komunak ezartzen badira, baldintza loteslea izango da sortzen diren hondakin-urak saneamendu-sistema orokorrera konektatzea (Plan Hidrologikoko 52.1 art.).

Alde horretatik, jarduketa batek jabari publiko hidraulikoari eragiten badio edo jabari horri lotutako babes-eremuetan badago (zortasuna eta zaintza), Uraren Euskal Agentziaren administrazio-baimena beharko da nahitaez.

Informazio-planoei jarraituz, argiztapen-sarea ez da bide berdetik pasatzen. Berriz ere, aldiz, trazadura oso gertutik doa, bidearen iparraldean, San Antonio zein San Lorenzo eremuetan. Hala, biak izan daitezke sare berriarekin konektatzeko puntu. Edonola ere, informazio hori alderatu egin behar da sareko konexio-puntua hautatzen denean.

Hurrengo dokumentuetan (Hirigintza Jarduketako Plana eta Urbanizazio Proiektua kasurako), informazio hori zehatzago jaso beharko da, sare berriak ondo proiektatzeko eta ondoriozko kostuak behar bezala aztertzeko.

Oro har, eskema orientagarriak jaso dira dokumentu grafikoetan, hornidura-, saneamendu- eta argiztapen-sareetarako. Bide berdean ezarriko diren erabilerek behar dituzten gainerako sareak egokiro aztertuko dira Urbanizazio Proiektuan, egikaritzeari begira.

Proposatzen diren sareen eskemak abiapuntuko ideiak besterik ez dira, trazaduraren aukerak jorratzeko. Urbanizazio Proiektua xehatuagoa da, eta aukera horiek hartan sakondu eta aztertuko dira.

A.5.3 Eraikuntzaren araubidea

Plan Bereziko arauetan, *B.1.2 Kontzeptuen terminologia* atalean (8. art., bide berdearen erabilera osoa), zehazten da zer xedapen bete behar diren lurzoru urbanizaezinean. Zehatz-mehatz, xedapen horiek dakartzan 135. artikulua Ermuko HAPOk IV. tituluko 5. kapituluaren kokatzen da, IV. atalean. Salbuespena 5. puntua da (*Eraikuntzaren eta lanen araubidea*), eta hartan eraikuntzaren araubidea jasotzen da espazio libreen sistema orokorretarako. Bide berdearen eremua berezia denez gero, HAPOk eraikuntzaren araubidean dioena doitu nahi da murriztaileagoak izanez. Horretarako, Plan Berezian adierazitakoa beteko da.

Puntu honetan aipatu behar da eraikuntza txikiak egin daitezkeela erabilera osagarrien ondorioz: ***eraikuntza osagarriak eta zerbitzuetaoak***, eta ***sukaldaritza-instalazioak***. Horretarako baldintza bereziak daude, B atalean jaso direnak: *Plan Berezia*ren *hirigintza-arauak*.

Alde batetik, ***eraikuntza osagarriak eta zerbitzuetaoak*** erabilera osagarria definituta dago Plan Berezia

“-Instalazio txikiak jarri ahalko dira. Ez dute plantako 20 metro karratu baino gehiago hartuko eraikuntza-bolumen bakoitzeko. Altuera 3,5 metroko solairu bat izango da, gehienez”.

Sukaldaritza-instalazioak erabilera osagarrian, TG ordenantzari (tunelaren gunea) dagokion inguruan soilik izango da posible. Jada eraikita dagoen espazio bat antolatu nahi denez (tunelaren tarteak) beste erabilera batzuk emateko, ez da eraikuntza berritza hartuko. Alde horretatik, *gelak* direla esaten da. Erabilera osagarriaren eta ordenantzaren berezitasunak direla eta, eraikuntza-baldintzak ordenantza horren baldintza berezietan jaso dira, Plan Bereziaren arauetako 15. artikuluan.

Bestalde, **behin-behineko instalazioak** erabilera osagarria ez da eraikigarritasun gisa aintzat hartzen, baina parametro hauek dagozkie:

“-Instalazio txikiak jarri ahalko dira. Ez dute plantako 10 metro karratu baino gehiago hartuko eraikuntza-bolumen bakoitzeko, 6 hilabetetik beherako tarte jarraituetan.

-Desmuntatzea erraza izan behar da, eta ez du eragin behar egitura edo jarduketa iraunkorrik egitea”.

Parametro horiek aplikatuko dira eraikuntzak egiteko aukera ematen duten erabilera osagarrietan, eta ordenantzek aukera ematen dutenean soilik.

Gehieneko eraikigarritasuna $0,01 \text{ m}^2/\text{m}^2$ da bide berdearen eremu osoan. Alegia, eraikigarritasun osoa $181,66 \text{ m}^2$ da, eta eraikitzeko erabilerak izateko aukera ematen duten ordenantzetan adierazten den moduan banatuko dira.

A.5.4 Landaredia eta lorategiak

Plan Bereziaren helburuen artean, arreta berezia jarri behar da jarduketa-eremuko landaredian eta lorategietan. Hain zuzen, bidearen inguruko landarediaren biodibertsitatea areagotu nahi da (landaredia onbideratzea eta espezia autoktonoak landatzea), eta izaera naturala gorde.

Halaber, jada badagoen landaredia babestu nahi da ahal den neurrian, baina garbitu edo onbideratu behar da espezie inbaditzaileak baztertzeko.

Hortaz, esposizio-, orientazio- eta altitude-baldintzak aintzakotzat hartu behar dira espezieak hautatzeko. Espezie ez-inbaditzaileak aukeratuko dira, eta landaketa dagoen eremu biogeografiko berekoak, ahal dela.

Lehenetsi da azpiegiturak nekazaritza-lurzoruan izan dezakeen eragina ahalik eta txikiena izatea, nekazaritza eta basogintza antolatze LPSra egokitze aldera.

A.5.5 Trenbide-eraginak

Plan Bereziak 41/2001 Dekretuaren bidez onartutako EAEko Trenbide Sarearen Lurraldearen Plan Sektorialeko zehaztapenak bete behar ditu, bai eta Trenbideen Sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legea, aurrekoa aldatzen duen 26/2002 Legea eta Erregelamendua ere, abenduaren 30eko 2387/2004 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa.

Jarduketak 44+800 KPen inguruan eta 43+600 KPtik 43+700 KPra artean egingo direnez, ETSk ematen duen administrazio-baimena beharko da lanak egiteko, azpiegituraren administraria delako EAEn. Horrek ez ditu beste administrazio publiko batzuen eskumenak baztertzen eta, beraz, ezein eskaera egin aurretik, eraikuntza-proiektua aurkeztu beharko da, ETSk aztertu eta baimena emateko, bidea trenbidetik gertu baitago kilometro-puntu horietan. Hartara, segurtasuna bermatu ahalko da.

A.6 HIRIGINTZA DATUEN LABURPENA

Jarraian, Plan Bereziko erabilera xehatuak definituko dira, B.1.3 ataleko (Zonifikazioa eta erabilera xehatuak. Hirigintza-araubidea) 9. artikuluan zehazten den moduan. Plan Berezian, HAPOn definitzen den berdegune publikoaren erabilera xehatua bi erabileratan banatu da:

- a) Oinezkoen Espazio Librea.
- b) Espazio Libre Berdea.

Bi erabilera xehatuei esleitutako azalera beheko taulan jaso da. Nolanahi ere, Plan Berezian aurrerago zehazten den bezala, bi erabileretan adierazi diren mugak ez dira erabakigarriak, ezta azalerak ere. Hortaz, orientagarriak dira.

ERABILERA XEHATUAK	GUTXI GORABEHERAKO AZALERA (m ²)
Oinezkoen Espazio Librea	11.569,71
Espazio Libre Berdea	6.816,07

A.7 NEURRI ZUZENTZAILEAK:

Plan Bereziaren dokumentuan jaso dira ingurumen-txosten estrategikoan adierazitako babes-neurriak eta neurri zuzentzaileak (Ebazpena, 2024ko abuztuaren 12koa, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Ermuko Bide Berdearen Plan Bereziari buruzko ingurumen-txosten estrategikoa), ingurumenean aurkako eragin nabarmenak ez izateko eta, hala, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta ez egiteko.

Babes-neurriak eta neurri zuzentzaileak aplikatzean, indarreko araudia eta aipatu ebazpenean finkatutakoa beteko da, eta testu horiei aurka egiten ez zaien bitartean, ingurumen-dokumentu estrategikoan eta Planean adierazitakoari jarraituko zaio.

Neurriak Urbanizazio Proiektuan ezarriko dira, eta gai hauei dagozkien jardunbide egokiak beteko dituzte: obrak, lurren eta soberakinen kudeaketa, hondakinak sortu eta kudeatzea (eraikinak eta zoladurak eraistearen ondoriozkoak barne), hondeatutako lurrak kontrolatzea, urak babestea, airearen kalitatea eta kalitate akustikoa. Hartara, eskuliburu hauek erabiliko dira:

- Jardunbide egokien eskuliburua, obretako langileek erabil dezaten. Gutxienez, honakoekin lotutako alderdiak jasoko ditu: lan-aldiak, makineria, uretan isuriak egitea saihestea, hautsaren eta zarataren sorrera minimizatzea, lasaitasun publikoaren gaineko kalteak minimizatzea, hondakinen kudeaketa...
- Obrak eta lurzorua okupatuko duten jarduera osagarriak ahalik eta eremu txikienean garatu behar dira. Ingurumenari ahalik eta gutxien eragiteko irizpideen arabera proiektatu beharko dira kontratistaren instalazio eremuak, hala nola makineria, obrako etxolak, obrako materiala aldi baterako gordetzeko eremua, eta landare-lurra eta hondakinak aldi baterako pilatzeko eremuak.
- Hondakinak sortzea eta kudeatzea: Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen arabera eta aplikatzekoak diren araudi espezifikoaren arabera kudeatu behar dira sortutako hondakinak, hondeatze-lanetatik eratorriak barne.

Hondakinak kudeatzeari buruzko printzipio hierarkikoak direla eta, hondakinak prebenitzea sustatu behar da, edo, hala badagokio, hondakinak kudeatu behar dira apirilaren 8ko 7/2022 Legeko 8. artikuluan finkatutako lehentasun-ordenan, hots,

prebentzioa, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea eta beste balorizazio-mota batzuk (energetikoa barne).

Hondakinak ezabatzea bideratuko dira soilik alde zuzenetik behar bezala justifikatu bada balorizazioa ez dela bideragarria teknikari, ekonomiari edo ingurumenari begira.

Hondakin arriskutsuak biltzeko sistema bereziak erabiliko dira, duten tipologia dela eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago n tipologia dela eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu zezaketen kasuetan. Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek bete behar dituzte hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 21. artikuluan finkatutako segurtasun-arauak, eta itxita egongo dira kudeatzaileari eman arte. Hala, edukia isuriz edo lurrunduz galtzea saihestuko da. Adierazitako ontziak modu argian, irakurgarrian eta ezabaezinean egongo dira idatzita, indarrean den araudiaren arabera.

Gune jakin bat egokituko da hondakin arriskutsuak behin-behinean biltegitratzeko; adibidez, olio-latak, iragazkiak, olioak, pinturak, etab. Orobat, hondakin geldoetarako edukiontzi espezifikoak ere egongo dira, besteetatik bereizirik. Bestalde, obretan zehar eta lanek dirauten bitartean, hondakinak biltzeko gailu estankokoak (bidoiak, etab.) instalatuko dira, izaeraren arabera bereizita. Hala jokatu da aipatu den garbigunean aldi baterako gorde zuzenetik.

Berariaz debekatzen da hondakin-motak nahastea edota bestelako hondakin edo efluenteekin nahastea. Era horretan, jatorrian bertan bereiziko dira eta nahastea ekiditeko bilketa- eta biltegitratze-bitarteko egokiak egongo dira.

Kudeatzaile baimenduari eman bitartean, agortutako olioak estalitako espazioetan gordeko dira, etiketa egokia daramaten ontzi estankoei, zola iragazgaitzaren gainean eta isurketak edo ihesak gelditu ditzaketen azpil edo sistemetan.

Araudia betetzea errazteko, lan bakoitzean sortzen diren hondakinak kudeatzeko sistemak eduki beharko dira. Sistemak lanen arduradunek kudeatuko dituzte, eta haien erantzukizuna izango da langileek ondo erabiltzea. Bereiziki, inola ere ez dira sortuko makinen mantentze-lanetatik eta erregaiak biltegitratzetik sortutako kontrolik gabeko efluenteak, eta debekatuta egongo da hondakinak erretzea.

Erabilitako olioien kudeaketari dagokienez, erabilitako industria-olioen kudeaketari buruzko ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretua aplikatuko da.

Eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzeko, honako hauek hartuko dira kontuan: 105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinak ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen; eta 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeaketa arautzen duena. Eraikuntza eraginkorragoa bultzatzea da helburua, haren bizi-ziklo osoan zehar baliabideak modu eraginkorrean erabiltzeko eta bizi-zikloaren amaieran hondakinak modu eraginkorrean aprobetxatzeko.

Maileguak behar dituen hurbileko obra batean, lurren eta harrien soberakinak balorizatzeari emango zaio lehentasuna; ezin bada, obretan sortutako indusketa-soberakinak, hala dagokionean, baimendutako soberakinen depositu batera eramango dira, eta horien kudeaketa indarrean dagoen legediaren arabera egingo da: 646/2020 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, hondakinak hondakindegietan biltegitatuta ezabatzeari buruzkoa; eta 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.

- Obrak egin bitartean hautematen bada lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak egon direla kokapenen batean, edo lurzoruaren substantzia kutsatzaileak daudelako zantzuak sendoak badira, horren berri eman beharko zaie berehala Ermuko Udalari eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari. Era horretan, zer neurri hartu behar diren zehaztuko du, eta zer pertsona fisikok edo juridikok hartu behar dituzten, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22.2 artikulua betetze aldera.
- Lurzorua eta lurpeko ura babestea: obren fasean prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaileak hartuko dira, nahi gabeko isuriak egitea saihesteko, bereziki makineriaren mantentze-lanetan zehar (material xurgatzaileak erabiltzea, isuriak kaltetutako lurra kentzea eta kudeatzea, etab.).

Metaketa eremuak, instalazio osagarriak edo makineria-parkea gainazal iragazgaitzetan kokatuko dira. Inpermeabilizatu gabeko eremuetan makineriaren mantentze-lanak egitea saihestuko da.

- Obretako zarata: zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan xedatutakoaren arabera, zonakatze akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei dagokienez, obra-fasean erabiltzen diren makinek aire zabalean erabiltzen diren makinen soinu-emisioei buruz indarrean dagoen legerian ezarritako aginduak bete behar dituzte, eta, bereziki, aire zabalean erabiltzen diren makina jakin batzuek ingurunean sortzen dituzten soinu-emisioak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan ezarritakoa ere bete beharko dute (apirilaren 28ko 524/2006 Errege Dekretuak aldatua), baita gainerako arau osagarriak ere.

Obrek irauten duten bitartean, jardunbide egokiak baliatu beharko dira zarata jatorrian murrizteko, batez ere eragiketa hauetan: hondeatzea, eraistea, zamalanak, garraioa... Orobat, jardunbide egokiei jarraitu beharko zaie makineriaren mantentze-lanak egiteko eta zarata zein bibrazioak jatorrian murrizteko.

Egunez lan egiteko ordutegia beteko da.

Lanak 6 hilabete baino gehiago irauten badute, urriaren 16ko 213/2012 Dekretuko 35bis artikuluaaren arabera, inpaktu akustikoaren azterketa egin beharko da, beharrezko neurri zuzentzaileak zehazteko.

- Euskal kultura-ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legean xedatutakoa baztertu gabe, aztarna arkeologikoren bat aurkitzen bada obrak egin bitartean, lanak prebentzioz etengo dira eta berehala jakinaraziko zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiari. Hark erabakiko du zer neurri hartu.
- Lorategi-espazio berdeak edo “espazio libre berdeak” tratatzea: espazio horietan landareak berriz hazten direnean, bidearen eremuan berez egon daitekeen landaredia kontuan hartu behar da (harizti azidofiloa eta hariztia-baso misto atlantikoa). Orobat, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak egindako «Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburua» (Udalsarea, 2017) ere aintzat eduki behar da zaharberritze-proiektua planifikatzeko.

Bestalde, flora aloktono inbaditzailearen aleak ezabatuko dira espezie inbaditzaileak kontrolatzeko. Horretarako, dagozkion neurriak hartuko dira, ez daitezen eremuan eta inguruan ugaritu. Birlandaketetan eta lorategi-lanetan, arriskuko espezieak eta inbasio-prozesuak eragin ditzaketen espezie aloktonoak ez erabiltzea bermatuko da (Espezie

apaingarriak hautatzeko gida. Udalsarea. 2017), eta erabiltzen den landare-lurak flora inbaditzailearen propagulurik ez duela bermatu behar da.

- Kanpoko argiztapenari dagokionez, eraginkortasun energetikoa maximizatzea eta argi-kutsadura minimizatzea izango da helburua, Kanpoko argi-instalazioen efizientzia energetikoaren araudia eta EA-01etik EA-07rako Jarraibide Tekniko Osagarriak onartzen dituen azaroaren 14ko 1890/2008 Errege Dekretuaren arabera.
- Jasangarritasuna eraikuntzan: ahal den neurrian, kontuan hartuko dira ingurumenari begira jasangarritasunez eraikitze gidetan datozen neurriak eta jardunbide egokiak baliatuko dira, aurrezpena eta energia-eraginkortasuna sustatzeko Planaren barruan egin daitezkeen eraikin txikietan, eta energia berriztagarriak bultzatzeko. Neurri horiek alderdi hauek jorratu behar dituzte, gutxienez:
 - Materialak. Lehengai ez-berriztagarrien kontsumoa murriztea.
 - Energia. Iturri ez-berriztagarrietatik energia sortzea eta/edo energia-kontsumoa murriztea.
 - Edateko ura. Edateko uraren kontsumoa murriztea.
 - Ur grisak. Ur grisaren sorrera murriztea.
 - Atmosfera. Gasen, hautsaren, beroaren eta argien isurpenak murriztea.
 - Barruko kalitatea. Barruko airearen kalitatea, erosotasuna eta osasuna hobetzea.

B. PLAN BEREZIKO HIRIGINTZA ARAUAK

B.1 PLAN BEREZIA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

B.1.1 Orokorrak

1. artikulua. Helburua eta eremua

Ermuko Bide Berdearen Plan Bereziaren (aurrerantzean, BBPB) ordenantzak Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean (aurrerantzean, HAPO) datozen zehaztapenen babesean idatzi dira. Ordenantzen helburua HAPO osatzea da, dagokion aplikazio-eremuan. Horretarako, lurrak eta eraikuntzak erabiltzeari lotutako alderdi guztiak modu xehatuan arautzen dituzte, bai eta lurzoruaren hirigintza-araubideari lotutakoak ere, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 69-70. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz.

2. artikulua. Plan Berezia osatzen duten dokumentuak

- Ordenantzari eta zehaztapenei buruzko informazio- eta justifikazio-memoria.
- Ordenantza arautzaileak dauden hirigintza-arauak.
- Egikaritzearen kudeaketako eta antolaketako ildoen azterketa.
- Bideragarritasun ekonomiko finantzarioaren azterketa.
- Informazioaren eta antolamendu xehatuaren planoak.
- I. eranskina: Genero-inpaktuaren azterketa
- II. eranskina: Hizkuntza-inpaktuaren azterketa
- Ingurumen-ebaluazio sinplifikatua

3. artikulua. Dokumentuen izaera arauemailea

Plan Bereziko Hirigintza Arauetan, B dokumentuko zehaztapen guztiek izaera arauemailea dute, baita antolamendu-planoetako zehaztapenek ere, sareen eskemen planoek izan ezik.

4. artikulua. Zehaztapenen hierarkizazioa

Dokumentu grafikoak eta idatzizkoak bat ez badatoz, baliozkoak eta aplikagarriak izango dira dokumentu hauetan datozen zehaztapenak, ordena berean: antolamendu-planoak, arauak eta memoria.

Antolamendu-planoetan erabileren eta ordenantzen mugak irudikatu dira, baina aldatu egin daitezke lurraren benetako egoerara moldatzeko, baldin eta moldaketa horiek aldaketa nabarmena ez badira eta/edo sestrak partekatzen ez badituzte eta/edo behar bezala justifikatuta badago.

Hirigintza-informazioari buruzko idatzizko dokumentuek eta dokumentu grafikoek ez dute balio arauemailerik, eta ezin dute justifikatu antolamenduan zehaztutakoarekin bat ez datorren interpretaziorik.

5. artikulua. Indarrean sartzea eta indarraldirako baldintzak

Plan Berezia indarrean sartuko da behin betiko onarpenaren akordioa argitaratu eta biharamunetik aurrera. Indarrean egongo da harik eta zehaztapenak erabat edo zati batean aldatzen diren arte, legez finkatzen diren eskakizunen eraginez, edo harik eta erabat indargabetzen diren arte, hori xedatzen duen maila handiagoko plangintza-tresna bat onartzearen eraginez.

Plan Bereziaren dokumentuko zehaztapenen bat baliogabetzeak, deuseztatzeak edo aldatzeak gainerakoen baliozkotasunean ez du eraginik izango, interrelazio edo mendekotasun egoerak direla eta horietako bat aplikagarri ez bada salbu.

6. artikulua. Partzela

Bide berdearen eremu osoa espazio askeen sistema orokorreko partzela bakarra da, 18.166,26 m²-koa.

B.1.2 Kontzeptuen terminologia

7. artikulua. Terminologia, HAPOren erabilerak eta Plan Bereziaren erabilerak

Plan Bereziaren dokumentuetan Ermuko HAPOko hirigintza-arauen terminologia erabiltzen da.

Era berean, indarreko legerian eta hura garatzen duten erregelamenduetan finkatuta dagoen terminologia errespetatu da.

BBPBk modu xehatuan garatzen ditu Ermuko HAPOn finkatutako erabileretako batzuk. Horregatik, Plan Bereziak xehatzen dituen erabilerak aurkeztuko dira orain, eta HAPOko zer erabilerari dagozkion zehaztuko da.

8. artikulua. Bide berdearen erabilera osoa

Plan Bereziari espazio askeen sistema orokorraren erabilera osoa esleitu zaio, HAPOk definizioari jarraituz.

Erabilera lurzoru-motaren arabera arautuko da, HAPOn eta araudi honetan xedatutakoa betez.

B.1.3 Zonifikazioa eta erabilera xehatuak. Hirigintza-araubidea

Jarraian, modu xehatuan garatuko dira BBPBren eremuan eragina duten zehaztapenak.

9. artikulua. Erabilera xehatuak

Bide berdearen erabilera xehatua bat dator Plan Orokorrean jasota dagoen definizioarekin; hots, erabilera berdegune publikoa da.

Erabilera xehatua Plan Bereziko erabilera-mota hauetan banakatzen da:

- a) **Oinezkoen espazio librea:** bide berdearen oinezko ibilbidea, konexioak eta sarbideak hartzen ditu bere baitan. Bizikleta-erabilera eta oinezkoena bateragarriak dira. Hartara, oinezkoen eta bizikleten bizikidetzarako espazio bat izango da.

BALDINTZA BEREZIAK:

- plataformaren sekzioa 4 metrokoa izango da, gutxienez. 4 metro horien barruan, oztoporik ez duen 3 metroko sekzioa gordeko da, gutxienez, oinezkoentzako ibilbidea jarraitua izateko. Alderdi fisikoen ondorioz 4 metroko sekzioa mantendu ezin bada, oinezkoentzako ibilbideak 3 metroko zabalera izango du gutxienez, eta oztoporik gabe.
- Mantentze-lanetarako ibilgailuak igaro ahalko dira.
- Ingurunearekin eta naturarekin bat datozen materialak hobetsiko dira. Zoladura pikorduna erabiltzen bada, trinkoa izan behar du eta, ahal den heinean, lurreko irregulartasunak saihestuko dira.

- b) **Espazio libre berdea:** bide berdearen inguruan dagoen lorategi-espazio libre berdea da. Gainerakoetan baino landare-dentsitate handiagoa dagoen guneak dira, orografia dela-eta beste erabilera batzuetarako egokiak ez direnak. Oro har, lurrera egokitzen diren edo malda nabarmenak dituzten ezpondaz osatuta daude.

BALDINTZA BEREZIAK:

- Espazio libre berdearen erabileran, dagoen landaredia gordeko da ahal bada. Aleak ezabatu edo ordezkatzan badira, irizpide teknikoengatik edo ingurumenekoengatik izango da.
- Espezia inbaditzaileak ezabatu egingo dira. Beste landare batzuk jarri ahalko dira, espezie ez-inbaditzaileenak. Hautaketa arduraz egingo da, eta espeziearen jatorria landaketaren eremu biogeografiko berekoa dela ziurtatuko da.
- Ezpondak egin ahalko dira eremu honetan, baita euste-elementuak ere, hormak kasurako. Paisaiarekin, ingurunearekin eta landareekin integratuta egoteko saioa egingo da. Garbitu eta soildu ahalko da, beharrezkoa izanez gero.

10. artikulua. Erabilera osagarriak

Hauek dira:

1. Ermuko HAPOn datozen **aisialdiko** erabilerak. Orain xehatuko dira:

- a) **EGONALDIKO GUNEAK:** oinezkoen ibilbidearen gune osagarriak, egoteko, atseden hartzeko eta behatoki izateko. Baliteke lorategiak egotea edo ez egotea.

Hiri-altzariak egon ahalko dira, adibidez, bankuak eta zakarrontziak, edo azpiegituren sareei dagozkien elementuak, esate baterako, farolak eta iturriak.

- b) **JOLASTEKO GUNEAK:** haurrak aire zabalean jolasean ibiltzeko guneak, altzariekin propio prestatuak.

Jolasteko guneek indarreko araudian finkatzen diren baldintzak bete beharko dituzte, dimentsioak, espazioak, distantziak eta segurtasun-altuerak, materialak eta ez erortzeko babesak direla eta.

Gune horietako zoladura hainbat materialekin tratatu ahalko da, besteetatik bereizteko. Dena den, gainerako materialekin bat etorriko dira eta ingurunean integratzea bilatuko da.

- c) **KIROL GUNEAK AIRE ZABALEAN:** aire zabalean kirola egiteko guneak.

Gune horietan, kirola aire zabalean egiteko makinak egon ahalko dira. Horretarako, ezinbestekoak diren baldintzak beteko dituzte dimentsio, espazio eta segurtasun-distantziei dagokienez.

Gune horietako zoladura hainbat materialekin tratatu ahalko da, besteetatik bereizteko. Dena den, gainerako materialekin bat etorriko dira eta ingurunean integratzea bilatuko da.

- d) **LORATEGI GUNEAK:** lorategi-espazio berde izateko gorde diren guneak, jada bazirenak eta proposatu direnak. Landareak eta zuhaitzak jarri ahalko dira.

Landare berriak arduraz hautatu behar dira. Hala, espeziearen jatorria landaketaren eremu biogeografiko berekoa dela ziurtatuko da eta jada dauden espezieekin bateragarria den aztertuko da.

Landare-espezie inbaditzaileak badago, ezabatu egingo da.

Parterreak edo jardinerak egiteko, proposamenaren gainerakoarekin eta ingurunearekin bat datozen materialak erabiltzea gomendatzen da.

2. Ermuko HAPOn jasota dagoen **BEHIN-BEHINEKO INSTALAZIOEN** erabilera BBPBn xehatu da. Zehazki, behin-behineko kultura- edo olgeta-instalazioak jar daitezkeen espazioak dira; adibidez, kioskoak, liburuak dituzten etxolak, aire zabaleko erakusketak, behin-behineko salmenta-puntuak (izozkiak, edariak, janaria, etab.), terrazak, etab.

Instalazio txikiak jarri ahalko dira. Ez dute plantako 10 metro karratu baino gehiago hartuko eraikuntza-bolumen bakoitzeko, 6 hilabetetik beherako tarte jarraituetan. Instalazio horiek ez dira eraikigarritasunean kontuan izango.

Desmuntatzea erraza izan behar da, eta ez du eragin behar egitura edo jarduketa iraunkorrik egitea.

3. **Jarduera zientifiko-kulturaletako eta jolas-erabilerako instalazioei edo eraikinei** dagokien erabilera ere Ermuko HAPOn jaso da, eta honela xehatu dira Plan Berezian:

- a) **ERAIKUNTZA ETA INSTALAZIO OSAGARRIAK ETA ZERBITZUETAKOAK:** bide berdean beharrezkoak diren zerbitzuei lotutako instalazio edo eraikuntza txikiak: komunak, biltegiak, mantentze-lanak, zerbitzuen sareak, etab. Halaber,

inguruarekin konektatzeko eta/edo sarbidea bideratzeko behar direnak ere bai (eskailerak, arrapala, igogailuak, etab.).

Instalazio txikiak jarri ahalko dira. Ez dute plantako 20 metro karratu baino gehiago hartuko eraikuntza-bolumen bakoitzeko, eta ingurunearekin integratuko dira ahalik eta ingurumen-inpaktu txikiena eragiteko. Altuera 3,5 metroko solairu bat izango da.

- b) **KULTURA ETA AISIA INSTALAZIOAK:** kultura-erabilerari lotuta dauden instalazioak edo esku-hartze finkoak dira; esate baterako, erakusketak, horma-irudiak, eskulturak, esku-hartze artistikoak edo tankera bereko kultura-jarduerak, bide berdearen ingurunean egoki izan daitezkeenak.

Iraunkorrak izanik, ez dute gainerako erabileretan eraginik izango eta bide berdearen ibilbide orokorra normaltasunez erabili ahal izango da. Bidearen ingurunean integratuko dira, ikusizko inpaktua eta ingurumenekoa txikia izateko moduan.

- c) **SUKALDARITZA INSTALAZIOAK:** instalazio finkoak, kafetegi-, taberna- eta jatetxe-zerbitzuak egoteko.

Tunelaren guneari buruzko ordenantzan soilik baimentzen da erabilera osagarri hori, egungo tunela aprobetxatuta. Gunea arau hauetan definitu da.

Bidearen ingurunean integratuko da, ikusizko inpaktua eta ingurumenekoa txikia izateko moduan.

B.1.4 Ordenantza arautzaileak

11. artikulua. Oinezkoentzako ibilbidea

1. Oinezkoen espazio librearen erabilera da ordenantza honetan nagusia, eta erabilera osagarri hauek bideratu ahalko dira: egonaldiko gunek, kirol-gunek aire zabalean, lorategi-gunek eta behin-behineko instalazioak.
2. Irudikatu diren mugak orientagarriak dira. Beraz, lurraren errealitatearen arabera moldatu daitezke, eta beste ordenantzekin trukatu, baldin eta mugakideak badira eta baldintza espezifikoak betetzen badituzte.

12. artikulua. Bideko gune bereziak (GB)

1. Ordenantza honen erabilera nagusia oinezkoen espazio librea da, eta erabilera osagarri hauek bideratu daitezke: egonaldiko guneak, jolas-guneak, kirol-guneak aire zabalean, lorategi-guneak, behin-behineko instalazioak eta eraikuntza osagarriak eta zerbitzuetakoak. Gune hauek definitu dira:

a) **1. GB:** bide berdearekin muga egiten duen San Antonio eremuarekin konektatzeko gunea, bidera eremu horretatik sartzeko.

- Gune honen zati batean +170,50 m-ko sestra ezarri da, jarraitutasuna lortzeko bidearen eta San Antonio eremuarekin mugakidea den espazioaren artean, bi espazioek bat egiteko.
- Mantentze-lanetarako ibilgailuak bidera sartu ahalko dira.

b) **2. GB:** zelaigune txikia bidearen erdiko tartean. Sekzioa zabalagoa denez, aipatu diren erabilera osagarriak bideratu ahalko dira. Atsedean hartzeko gune bat edo antzeko zerbait egon daiteke.

c) **3. GB:** San Lorenzo eremu mugakidearekin lotzeko aukera ematen du. Beste sarbide bat ere egon daiteke, Espilla baserrira doan bidearekin konektatzeko aukera egongo baita.

2. $0,01 \text{ m}^2/\text{m}^2$ -ko eraikigarritasuna finkatu da bide berdearen eremuan, hau da, $181,66 \text{ m}^2$ -ko eraikigarritasuna guztira, eraiki daitekeen gainazaletan banatuta.

13. artikulua. Berdeguneak ezpondetan

1. Berdegune librearen erabilera da ordenantza honetan nagusia, eta erabilera osagarri hauek bideratu ahalko dira: egonaldiko guneak eta lorategi guneak.

2. Mugak aldatu ahal izango dira, eta oinezkoen ibilbiderako gunea handitu, baldin eta mugakide den gunean maldak % 8tik beherakoak badira.

14. artikulua. Sarbideen eta komunikazio-nukleoen ibilbideak (A)

1. Oinezkoen espazio librearen erabilera da ordenantza honetan nagusia. Egonaldiko guneak, eraikuntza osagarriak, zerbitzuetako eraikuntzak eta lorategi-guneak egon ahalko dira, gainazalak aukera ematen duen lekuetan batik bat. Gune hauek definitu dira:

a) **A1 gunea:** iparraldeko sarbidea bide berdera iristeko.

Bidearen hasierako sarbidea da, eta Ermuko hirigunea eta bidea lotzen ditu. Gipuzkoa hiribidean hasten den sarbidea planteatu da, espaloitik abiatuta. Zehazki, irisgarritasunari buruzko araudia betetzen duen arrapala bat izango da, eta behar bezala koordinatuko da San Antonio eremuaren garapenarekin.

- Arrapalak hartu behar duen azalera zedarritu da PO-3.1-AP planoan irudikatu den bezala.

- Bidera iristeko sestra +170,80 m-an finkatu da, gehienez, 1. GBri buruzko ordenantzan mugarritu den guneko sestrarekin koordinatze aldera, +170,50 m-ko baita.

b) **A2 gunea:** Eitzagako sarbidea.

Bide berdera iristeko azken sarbidea da, eta Eitzaga auzoarekin konektatzen du. 11,5-12 m-ko aldea dago bide berdearen eta Eitzagara doan errepidearen artean. Azalera zedarritu egin da, errepide horrekin izan dezakeen konexioa hainbat modutan ebazteko. Muga horiek doitu eta aldatu ahal izango dira bide berdearen perimetroan, konexioaren kokapenik onenaren bila.

- Proposamen orientagarri bat irudikatu da, eta, beraz, ez da loteslea. Zehazki, loturak arrapalak dira, eta, aldi berean, eskailera bidezko beste sarbide bat dago.

2. Ordenantzako gune guztiei dagozkien baldintza bereziak (A):

a. A ordenantzan eta haren barruko gune guztietan ez da beharrezkoa izango oztoporik gabeko 3 m-ko sekzioa izatea gutxienez, oinezkoen espazio librea duen gainerakoan ez bezala.

b. $0,01 \text{ m}^2/\text{m}^2$ -ko eraikigarritasuna finkatu da bide berdearen eremuan, hau da, $181,66 \text{ m}^2$ -ko eraikigarritasuna guztira, eraiki daitekeen gainazaletan banatuta.

15. artikulua. Tunelaren gunea (TG)

1. Bideko tunelaren tartea da. Erabilera nagusia oinezkoen espazio librea da, eta erabilera osagarri guztiak egon daitezke. Hala, sukaldaritza-instalazioak (taberna, kafetegia, jatetxea, etab.) eta/edo instalazio artistikoak, kulturakoak eta abar jar daitezke.

2. Ordenantzaren baldintza bereziak:

- a. Tuneleko espazioa presta daiteke ordenantza honetan baimentzen diren erabileretarako, baldin eta, gutxienez, 1,5 m oztoporik gabe uzten badira, bidearen ibilbidea jarraitua dela ziurtatzeko. Era horretan, tuneletik igarotzeko aukera egongo da edozein egoeratan eta azkenean esleitzen zaion erabilera ezein izanik ere.
- b. Baimendu diren erabileretan beharrezkoak diren gelak sortu ahalko dira.
- c. Espazioa banatzeko elementuak jar daitezke gelak mugatzeko, itxitura bertikal eta horizontal gisa.
- d. TGn dagoen baina tuneletik kanpo geratzen den azaleran, gelak jarri ahalko dira aurreko ataletan zehaztu den moduan. Dena den, ezingo da tunelaren gehieneko altuera erabilgarria gainditu edo, besterik ezean, 3,5 m-ko altuera, gehienez.
- e. Tuneleko esku-hartzea oinezkoentzako ibilbideari jarraitutasuna ematera mugatzen bada, genero-ikuspegitik erabakigarriak diren alderdiei erreparatuko zaie; adibidez, argiztapenari eta tarteko segurtasunari. Hala, zokoak eta espazio irregularrak saihestuko dira.
- f. $0,01 \text{ m}^2/\text{m}^2$ -ko eraikigarritasuna finkatu da bide berdearen eremu osoan, hau da, $181,66 \text{ m}^2$ -ko eraikigarritasuna guztira, eraiki daitekeen gainazal guztietan banatuta.
- g. Bidearen proiektuan, gangaren tratamendua aintzakotzat hartuko da, aske dagoen materialak lur-jausirik ez eragiteko, txikiak izanik ere.

16. artikulua. Sestra azpiko erabilerak bide berdearen eremuari gainjarritako bateragarritasun-eremuetan (AEDP-10: San Antonio eta AOD-02: San Lorenzo)

Sestra azpiko erabilerak egon daitezke BBPBren eremuari gainjartzen zaizkion bateragarritasun-eremuetako gainazaletan. Erabilerak eta baldintza bereziak eremu bakoitzeko plan berezietan eta/edo partzialetan zehaztuko dira.

17. artikulua. Hirigintzaren ezaugarri orokorrak

Urbanizazio Proiektua idaztean, Ermuko HAPOn hirigintza-araudian xedatutakoa beteko da, Plan Bereziaren araudi honetan jaso diren alderdiekin osatuta. Kontraesanik sortzen bada, Ermuko HAPOn horri buruz agintzen dena gailenduko da.

Plan Bereziko zehaztapenak osorik garatu beharko dira Urbanizazio Proiektuan, eta idazteko garaian kontuan hartuko dira dokumentu honetan orientabide gisa jaso diren zerbitzuen eskemak.

Ezpondako aurkako eraikuntza-baldintzak kontuan hartuko dira bidearen diseinu-proiektuan jasotzeko, mendiko eremu horretan lur-jausiak daude eta. Gangaren tratamendua ere egingo da, aske dagoen materialak lur-jausi txikiak ez eragiteko.

18. artikulua. Oinezkoentzako trazadura

Oinezkoentzako trazadura moldatuko da oinezkoen espazio librearen baldintza bereziak betetzeko eta BBPBko dokumentu grafikoetan adierazitakoarekin bat etortzeko. Urbanizazio Proiektuan finkatzen diren behin betiko sestrekin bete egingo dituzte planoetan jasotako zehaztapenak. Nolanahi ere, doikuntzak egin ahalko dira antolamendua egokitzeko, topografia zehatzagoa eta azterketa zein garapen xehatuagoak aintzat harturik.

19. artikulua. Ura hornitzeko eta banatzeko sarea

Hornidura-sarea dimentsionatzeko, indarreko araudian eta udal-ordenantzetan finkatutako irizpideak beteko dira.

Araudiak baimentzen dituen materialak erabiliko dira eraikuntza-lanetan, eta udal-bulegoaren irizpide teknikoei jarraituko zaie.

20. artikulua. Saneamendu-sarea

Hornidura-sarea berezia izango da, eta indarreko araudian eta udal-ordenantzetan finkatutako irizpideak beteko dira.

Araudiak baimentzen dituen materialak erabiliko dira eraikuntza-lanetan, eta udal-bulegoaren irizpide teknikoei jarraituko zaie.

Bide berdean sukaldaritza-instalazioak eta/edo komunak ezartzen badira, baldintza loteslea izango da sortzen diren hondakin-urak saneamendu-sistema orokorrera konektatzea (Plan Hidrologikoko 52.1 art.).

Alde horretatik, jarduketa batek jabari publiko hidraulikoari eragiten badio edo jabari horri lotutako babes-eremuetan badago (zortasuna eta zaintza), Uraren Euskal Agentziaren administrazio-baimena beharko da nahitaez.

21. artikulua. Energia elektrikoko eta telefoniako sarea

Behe-tentsioko eroapena eta telefonoarena lur azpitik bideratuko da Plan Bereziaren eremuan. Halaber, hariteriak eta instalazioek indarreko erregelamendu ofizial guztiak bete behar dituzte, baita konpainia emakidadunen arauak ere.

22. artikulua. Argiztapen publikoaren sarea

Argiztapen publikoaren instalazioak argiztapen- eta uniformetasun-maila egokiak bermatu behar ditu. Lineen hariteria lur azpitik joango da.

Modeloak hautatzeko orduan, udal-bulegoaren irizpide teknikoak bete behar dira. Nolanahi ere, Bide Berdearen ingurunean integratzea eta koherentea izatea bilatuko da.

23. artikulua. Lorategiak eta zuhaitzak

Zuhaitzak edo landareak ez dira espezie inbaditzaileak izango eta autoktonoak izango dira. Espezieen jatorria landaketaren eremu biogeografiko berekoa dela bermatuko da, eta espezieak bateragarriak direla ere bai.

24. artikulua. Hiri-altzariak

Hiri-altzariak hauek izango dira: bankuak, babeserako hesiak, seinaleetikako elementuak, panelak, zakarrontziak, etab. Hiri-altzariak ingurunean integratuta egongo dira, ahal den neurrian. Horretarako, material naturalak erabiltzea gomendatzen da (zura kasurako), edo, bestela, kromoarekin eta artsenikoarekin tratatu diren materialak, UNE-EN 335-2.2007 araua betez.

Babeserako hesiak jarriko dira bide berdearen inguruan, erortzeko arriskua dagoen puntuetan eta orografia malkartsua den zatietan.

25. artikulua. Trenbide-eraginak

Plan Bereziak 41/2001 Dekretuaren bidez onartutako EAeko Trenbide Sarearen Lurraldearen Plan Sektorialeko zehaztapenak bete behar ditu, bai eta Trenbideen Sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legea, aurrekoa aldatzen duen 26/2002 Legea eta Erregelamendua ere, abenduaren 30eko 2387/2004 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa.

Jarduketak 44+800 KPen inguruan eta 43+600 KPtik 43+700 KPra artean egingo direnez, ETSk ematen duen administrazio-baimena beharko da lanak egiteko, azpiegituraren administraria delako EAEn. Horrek ez ditu beste administrazio publiko

batzuen eskumenak baztertzen eta, beraz, ezein eskaera egin aurretik, eraikuntza-proiektua aurkeztu beharko da, ETSk aztertu eta baimena emateko, bidea trenbidetik gertu baitago kilometro-puntu horietan. Hartara, segurtasuna bermatu ahalko da.

26. artikulua. Inpaktuak zuzentzea eta neurri zuzentzaileak

Inpaktu eta eragin negatiboak —txikiak izanda ere— saihestu, txikiagotu, zuzendu edo desagerrarazte aldera, nahitaezko neurri hauek hartu eta bete beharko dira urbanizazio-obrak egiten direnean:

- Eragiketak baldintza atmosferikoen arabera planifikatu behar dira, materialaren zamalanei lotutako hautsa ez altxatu eta sakabanatzeko, eta berdin hondeatze-eragiketetan. Neurri hori oso eraginkorra da eta ez dakar kostu handirik.
- Ikusizko oztopoak ipiniko dira obren gunea isolatzeko eta, era horretan, obren ikusizko eragina saihestuko da.
- Orobat bermatu beharko da obretan sortzen diren hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak bildu eta kudeatzen direla legeria sektorialean xedatutakoari jarraituz.
- Herritarrei trabak murrizteko jardunbide egokiak beteko dira oro har; esate baterako, lan-ordutegiak, zarata eta hauts-isurketak kontrolatzea.

Gainera, aintzakotzat hartuko dira ingurumen-txosten estrategikoan adierazitako babes-neurri eta neurri zuzentzaile guztiak (Ebazpena, 2024ko abuztuaren 12koa, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Ermuko Bide Berdearen Plan Bereziari buruzko ingurumen-txosten estrategikoa), ingurumenean aurkako eragin nabarmenak ez izateko.

RESUMEN ORDENANZAS

Tablas de usos complementarios permitidos

Ip Itinerario peatonal

Ip /// Itinerario Peonatal	
USO PRINCIPAL Pormenorizado	a) Espacio Libre Peonatal
USOS COMPLEMENTARIOS	Ip
Zonas de Estancia	X
Zonas de Juego	
Zonas de Deportes al aire libre	X
Zonas Ajardinadas	X
Instalaciones provisionales	X
Edificaciones Auxiliares y de Servicios	
Instalaciones Culturales y de Ocio	X
Instalaciones de Restauración	

Ze Zonas Especiales

Ze /// Zonas Especiales de la senda	
USO PRINCIPAL Pormenorizado	a) Espacio Libre Peonatal
USOS COMPLEMENTARIOS	Ze (zonas Ze1, Ze2)
Zonas de Estancia	X
Zonas de Juego	X
Zonas de Deportes al aire libre	X
Zonas Ajardinadas	X
Instalaciones provisionales	X
Edificaciones Auxiliares y de Servicios	X
Instalaciones Culturales y de Ocio	X
Instalaciones de Restauración	

Ev Espacios Verde en Talud

Ev /// Espacios Verdes en Talud	
USO PRINCIPAL Pormenorizado	b) Espacio Libre Verde
USOS COMPLEMENTARIOS	Ev
Zonas de Estancia	X ^{*1}
Zonas de Juego	
Zonas de Deportes al aire libre	
Zonas Ajardinadas	X
Instalaciones provisionales	
Edificaciones Auxiliares y de Servicios	
Instalaciones Culturales y de Ocio	X
Instalaciones de Restauración	

*1 Se permitirá el uso complementario de zonas de estancia en aquellos puntos que técnica y constructivamente sea posible y cumpla condiciones de seguridad oportunas en cada caso. Además, tendrá que predominar la vegetación y preservarla en la medida del posible.

Ano Itinerarios de accesos y núcleos de comunicaciones

(A) /// Itinerarios de Accesos y núcleos de comunicaciones.	
USO PRINCIPAL Pormenorizado	a) Espacio Libre Peonatal
USOS COMPLEMENTARIOS	A (zonas A1, A2)
Zonas de Estancia	X
Zonas de Juego	
Zonas de Deportes al aire libre	
Zonas Ajardinadas	X
Instalaciones provisionales	
Edificaciones Auxiliares y de Servicios	X
Instalaciones Culturales y de Ocio	X
Instalaciones de Restauración	

Zt Zona túnel

(Zt) /// Zona túnel.	
USO PRINCIPAL Pormenorizado	a) Espacio Libre Peonatal
USOS COMPLEMENTARIOS	Zt
Zonas de Estancia	X
Zonas de Juego	X
Zonas de Deportes al aire libre	X
Zonas Ajardinadas	X
Instalaciones provisionales	X
Edificaciones Auxiliares y de Servicios	X
Instalaciones Culturales y de Ocio	X
Instalaciones de Restauración	X

RESUMEN EDIFICABILIDAD

USOS QUE PERMITEN EDIFICAR:	
f	Edificaciones Auxiliares y de Servicios
h	Instalaciones de restauración *
* Únicamente computará como edificabilidad volúmenes fuera del túnel.	
ORDENANZAS QUE PERMITEN USOS EDIFICABLES:	
Ze	Zonas Especiales
A	Itinerarios de Accesos y núcleos de comunicaciones
Zt	Zona Túnel
EDIFICABILIDAD	
SUPERFICIE SENDA VERDE	18166,26m ²
EDIFICABILIDAD	0,01m ² /m ²
EDIFICABILIDAD TOTAL	181,66m ²

Esquema de USOS

USOS Principales

- a)  USO PRINCIPAL
Espacio Libre Peatonal
- b)  USO PRINCIPAL
Espacio Libre Verde

PGOU	1 USOS GLOBAL: SGEELL	
PGOU	1.1 USO PORMENORIZADO: Espacio Verde Público	
	DESGLASE USOS PORMENORIZADO (USO PRINCIPAL EN P.E.):	
PE	1.1 a) Espacio Libre Peatonal	
	USOS COMPLEMENTARIOS	
a	Zonas de Estancias	
b	Zonas de Juegos	
c	Zonas de Deportes al aire Libre	
d	Zonas Ajardinadas	
e	Instalaciones Provisionales	
f	Edificaciones e Instalaciones Auxiliares y de Servicios	
g	Instalaciones culturales y de ocio	
h	Instalaciones de restauración	
PE	1.1 b) Espacio Libre Verde	
	USOS COMPLEMENTARIOS	
a	Zonas de Estancias	
d	Zonas Ajardinadas	
g	Instalaciones culturales y de ocio	

*Eraikigarritasun osoa 181,66 m²-koa izango da, eraiki daitekeen gainazal guztietan banatuta.

C. EGIKARITZEAREN KUDEAKETAKO ETA ANTOLAMENDUKO ILDOEN AZTERKETA

C.1 JARDUKETA MOTA

Eremuaren garapena sistema orokorren eta tokikoen sareko zuzkidura publikoak egikaritzeko jarduketaren esparruan kokatzen da.

C.2 HAPB EGIKARITZEKO EPEAK

BBPB egikaritzeko epea ez dago zehaztuta, baina Ermuko HAPOren indarraldian zehar egikaritu behar da. BBPB lau fase hauetan garatu ahal izango da:

- a) 1. FASEA: bidea hobetu eta moldatzea erdiko tartean, San Antonioko egungo sarbideetik tunela pasatu eta hortxe dagoen 2. gune bereziraino (2. GB).
- b) 2. FASEA: San Antonio eremutik Bide Berdera sartzeko arrapala (A1) garatzea.
- c) 3. FASEA: Bide Berdearen garapena 2. gune berezitik (2. GB) Eitzagako sarbideraino (A2).
- d) 4. FASEA: Eitzagatik Bide Berdera sartzeko arrapala (A2) garatzea.

C.3 URBANIZAZIO PROIEKTUA ETA OBRAK

1. faseko urbanizazio-proiektua bi (2) urteko epean esleitu beharko da, Plan Bereziaren behin betiko onarpenetik aurrera zenbatzen hasita. Gainerako faseak Ermuko HAPO indarrean dagoen bitartean esleai daitezke.

D. BIDERAGARRITASUN EKONOMIKO-FINANTZARIOAREN AZTERKETA

Atal honetan, dokumentuan jorratu den antolamenduaren bideragarritasun ekonomikoa aztertzen da. Horretarako, BBPBren eremua urbanizatzeko kostuei erreparatuko zaie.

D.1 URBANIZAZIOAREN KOSTUAK

Gastuak talde handitan egituratu dira. Hartara, bide berdea urbanizatu eta hobetzeko obren kostua kalkulatu da, eta zerbitzuak ezartzeko kostua ere bai. Plana garatu daitekeen lau (4) faseen arabera banatu da:

- a) 1. FASEA: bidea hobetu eta moldatzea erdiko tartean, San Antonioko egungo sarbideetik tunela pasatu eta hortxe dagoen 2. gune bereziraino (2. GB), San Lorenzon.

1. FASEKO aurrekontua:		
Zk.	Kapitulua	Zenbatekoa (euroak)
001	AURRETIAZKO JARDUERAK	40.410,00
002	BIDE ZORUAK ETA KANPOKO ZOLADURA	90.000,00
003	ARGIZTAPEN SAREA.	78.725,00
004	EGITURAK	18.900,00
005	LORATEGIAK ETA ZUHAITZAK	39.809,00
006	HIRI ALTZARIAK	60.748,00
007	EURI UREN SAREA	32.739,12
008	HORNIDURA SAREA	21.250,00
009	SEGURTASUNA ETA OSASUNA	5.164,84
010	KALITATE KONTROLA	7.651,62
011	HONDAKINEN KUDEAKETA	4.973,55
	EMA GUZTIRA, 1. FASEA	400.371,13
	% 19 (gastu orokorrak eta industria-etekina)	76.070,51
	KONTRATAREN AKTU. OSOA	476.441,64

- b) 2. FASEA: San Antonio eremutik Bide Berdera sartzeko arrapala (A1)
garatzea.

2. FASEKO aurrekontua:		
Zk.	Kapitulua	Zenbatekoa (euroak)
001	LURRAK MUGITZEA	10.500,00
002	ZIMENDUAK	15.330,00
003	EGITURA	37.240,00
004	BABES ELEMENTUAK	29.400,00
005	UR BILKETA	4.000,00
006	AKABERAK	6.650,00
007	ARGIAK	7.440,00
008	SEGURTASUNA ETA OSASUNA	1.492,56
009	KALITATE KONTROLA	2.211,20
010	HONDAKINEN KUDEAKETA	1.437,28
	EMA GUZTIRA, 2. FASEA	115.701,04
	% 19 (gastu orokorrak eta industria-etekina)	21.983,20
	KONTRATAREN AKTU. OSOA	137.684,24

- c) 3. FASEA: Bide Berdearen garapena 2. gune berezitik (2. GB) Eitzarako sarbideraino (A2).

3. FASEKO aurrekontua:		
Zk.	Kapitulua	Zenbatekoa (euroak)
001	AURRETIAZKO JARDUERAK	20.990,00
002	BIDE ZORUAK ETA KANPOKO ZOLADURA	60.000,00
003	ARGIZTAPEN SAREA.	32.500,00
004	LORATEGIAK ETA ZUHAITZAK	16.719,78
005	HIRI ALTZARIAK	25.844,65
006	EURI UREN SAREA	22.215,84
007	HORNIDURA SAREA	8.925,00
008	SEGURTASUNA ETA OSASUNA	2.227,21
009	KALITATE KONTROLA	3.299,58
010	HONDAKINEN KUDEAKETA	2.144,73
	EMA GUZTIRA, 3. FASEA	194.866,79
	% 19 (gastu orokorrak eta industria-etekina)	37.024,69
	KONTRATAREN AKTU. OSOA	231.891,48

d) 4. FASEA: Eitzagatik bide berdera sartzeko arrapala (A2) garatzea. *

4. FASEKO aurrekontua:		
Zk.	Kapitulua	Zenbatekoa (euroak)
001	LURRAK MUGITZEA	12.480,00
002	ZIMENDUAK ETA EUSKARRIAK	28.470,00
003	ZUREZKO EGITURA	95.160,00
004	BABES ELEMENTUAK	37.440,00
005	AMAITZEKO TRATAMENDUA	8.900,00
006	EGITURA OSAGARRIAK	5.950,00
007	ARGIAK	14.460,00
008	ZUREZKO ESKAILERAK	36.000,00
009	SEGURTASUNA ETA OSASUNA	3.224,61
010	KALITATE KONTROLA	4.777,20
011	HONDAKINEN KUDEAKETA	3.105,18
	EMA GUZTIRA, 4. FASEA	249966,99
	% 19 (gastu orokorrak eta industria-etekina)	47.493,73
	KONTRATAREN AKTU. OSOA	297460,72

*4. FASEKO aurrekontuan Eitzagako sarbidearen (A2) proposamen orientagarria zenbatetsi da. PO-3.6-AP planoan irudikatu da, eta zurezko pasabideekin eta eskailera bat erabili dira Bide Berdera iristeko. Dena den, proposamena ez da loteslea.

E. INFORMAZIO PLANOEN ETA ANTOLAMENDU XEHATUAREN PLANOEN ZERREDA

Beheko zerrendan, dokumentuko informazio- eta antolamendu-planoak jaso dira.

E.1 INFORMAZIO PLANOAK

PLANO ZK.	DESKRIBAPENA	ESKALA
PI-01-IP	Eremuaren kokapena	1/5.000
PI-02-IP	Eremuaren mugak	1/5.000
PI-03-IP	Indarreko hirigintza-plangintza. Lurzoruaren sailkapena	1/5.000
PI-04-IP	Indarreko hirigintza-plangintza. Kalifikazio orokorra	1/5.000
PI-05-IP	Bide-eraginak	1/3.500
PI-06-IP	Trenbide-eraginak	1/3.500
PI-07-IP	Eraginak ibai-ibilguetan	1/3.500
PI-08.1-IP	Hornidura sarea	1/3.500
PI-08.2-IP	Saneamendu-sarea	1/3.500
PI-08.3-IP	Argiztapen-sarea	1/3.500
PI-08.4-IP	Energia elektrikoaren sarea	1/3.500
PI-08.5-IP	Gasaren sarea	1/3.500
PI-08.6-IP	Telekomunikazioen sarea	1/3.500
PI-09-IP	Eragina partzeletan	1/3.500

E.2 ANTOLAMENDU PLANOAK

PLANO ZK.	DESKRIBAPENA	ESKALA
PO-01-AP	Eremuaren kokapena	1/12.000
PO-02-AP	Eremuaren mugak	1/5.000
PO-03.1-AP	Antolamendu xehatua, ordenantzak eta sestrak	1/800
PO-03.2-AP	Antolamendu xehatua, ordenantzak eta sestrak	1/800
PO-03.3-AP	Antolamendu xehatua, ordenantzak eta sestrak	1/800
PO-03.4-AP	Antolamendu xehatua, ordenantzak eta sestrak	1/800
PO-03.5-AP	Antolamendu xehatua, ordenantzak eta sestrak	1/800
PO-03.6-AP	Antolamendu xehatua, ordenantzak eta sestrak	1/800
PO-04.1-AP	1 profilak	1/200
PO-04.2-AP	Ereduzko profilak	1/200
PO-5.1-AP	Hornidura-sarearen eskema	1/3.500
PO-5.2-AP	Saneamendu-sarearen eskema	1/3.500
PO-5.3-AP	Argiteria-sarearen eskema	1/3.500

F. ERANSKINAK